

SAMINA

Bi ekitaldiko antzerki dramatikoa

EUGENIO AROZENA EGIMENDIA

Jokolariak:

MANUEL: (50 urte) Aurpegi zimurtua. Lana egindako gizona. Berez igeltseroa; orain langile talde baten nagusi. Begiak biziak ditu.

GORKA: (42 urte) Inoiz lanik egingabeko gizona. Ez da ez itsusia, ez eta galanta. Gizon maltzurra. Diruduna, bere aurrekoek utzitako ondasunen jabe.

MIREN: (45 urte) Emakume xarmanta. Bere gorputza kontu egiten jakin duena eta ez zaio urteen zama gehiegi igartzen.

MAITE: (22 urte) Neska gaztea. Benetan liluragarria, bere edertasunak ez du parerik.

Kokagunea:

Euskal Herrian, 1975.urteko udaren hasiera, Gipuzkoa Lurraldean kokaturiko herri txiki batean. Herriak gutxi gora-behera 6.500 biztanle ditu eta, etxe multzoak hasi baino lehenago, eskubi aldeko bide ertzean jadanik nekazaritzarako erabiltzen ez den berrituriko baserri bat aurkitzen da. Baserri aurrean, ate parez ez ezik, karraskila luze batez itxia eta atetik karraskilora bitarte harri zabalzko lurra eraikitzen da. Kanpotik karraskila igaro orduko, mahain antzera jarria dagoen egurrezko gorpila dago, inguruan pago enbo-

rrez eginiko eserlekuak eta han-hemenka larrosa sorta ederrak. Eskubiko ormari itsatsia aulki luze bat; ezker aldean jeranioak zintzilikaturik dauden leiho handi bat, garai batean sukaldeko leihoa.

Baserri barruko sarrera zeharo aldaturik dago, sukalde eta ezkaratza zaharrekin saloi eder bat egina dago. Eskuinean, eskuz eginiko arropak zintzilikatzekoa, kutxa eder bat. Sarrerako ate parean gainerantzeko geletara eta sukaldera abiatzeko beste atea. Atearen ezkerretara, kuadro handi bat (baserria lehenengo planoan ikusten da). Ezkerretako horman, liburutegi handia. Hutsuneak daude, gauzak edozein modutara jarriak. Zabarkeri eskua nabaritzen da. Erdi-erdian tresilo handia eta leiho ertzean telebista txiki bat.

LEHEN EKITALDIA

Goizeko 11ak. Gau euritsu baten ondoren uztaileko lehen egunetan eguzkiaren dizdirak neketsu hausten ditu hodeien barrerak, baina ateratzea lortzen dutenek karraski, jeranio, larrosen hosto bustietan topo eginaz sortzen dituen printzak tokia edertzen dute. Maite etxe aurrean dabil, ezkerrean otartxoak eta eskuinean gurazak daramatza, han-hemenka larrosa egokienak ebaki eta otartxoan utziaz.

Manuel, etxeko leihotik, gure neskatoaren pausoak jarraitzen ari da. Ez da harritzekoa, gona motza eta niki oso irekia darama eta gorputza ihesi nahian dabilela dirudi. Manuel galtza, alkondara eta bizkar gainean daraman jertsei batez jantzita doa. Jazkeran kolore nabarra nagusi dela.

MANUEL: Emakumeen joera, loreari lepoa moztu beharra.

MAITE: Etxe barrua egokitzeko zerbait jarri beharko dugu bada, bestela mutilzahar etxe honek zeharo nahigabekutuko nau.

MANUEL: Ez al zaitu etxe aurreko giroak pizten? Etxe barruan loreak mozturik ordu biko grazia, handik aurrera zimeltzearen negarra doakie. Edertasunari bizia eman behar zaio eta ez kendu. Loreek emakumeeri konpe-

tentzia egiten dizuetelako aritzen zarete modu honetan goraizeekin jolasten.

MAITE: (*Ironikoki*) Manuel, goiz honek olerkari sentimentala bihurtu zaitu, jakin ezazu nire gaurko larrosa mozte hau ez dela ingurua txukuntzea baizik.

MANUEL: Bai, zure amaren etorrerarako txukuntzen. Ondo dago, ni ere pretis nago eta uste dut zu ere gertatu eta nirekin etorri beharko zenukeela.

MAITE: Beharrezkoa ikusten al duzu gu biok herriko plazara errezibitzea joatea? Ez zitzaion bidea ahaztuko eta, gainera, dakizun bezala, Madrileko lagun batekin helduko da.

MANUEL: Hala eta guztiz, zu plazan itxoiten ikusteak zoriontsu egingo luke.

MAITE: Ez dut nire presentzia beharrezkoa denik ikusten.

MANUEL: Badirudi zure ama ezagutzen ez duzula. Zu zara bere guztizkoa eta zuregan dituen itxaropenak ez dira nolana-hikoak...

MAITE: Horrek beldurtzen nau hain zuzen.

MANUEL: Ah! eta ez dizut esan beharrik zure etorkizuna erosoan izan dadin, zer nolako pausoak eman dituen.

MAITE: Bada hor dago nire kezka. Amaren bizitzaz ez dakit ezer ere eta ondo dakizun bezala, urtean behin edo bitan elkartzeko gara etxe honetan egun batzuk igarotzeko, besterik ez. Hutsa da. Manuel, zergatik ez didazu zeuk bertan axaletik bada ere zertxobait kontatzen?

MANUEL: Barka iezadazu baina erabat ezinezkoa zait, zure amaren bizitzaz hitzegitea; bestalde, ez dakit gehiegirik.

MAITE: Zure hitzak sinesgaitzak dira. Zuek biok anai-arreba askok berentzako nahiko luketen harreman sendoak izan dituzue.

MANUEL: Bai, hori egia bada ere, bakoitzak zegokigun bidea jarraitu dugu, batak besteari jaramonik egin gabe; nahiz

eta beharra eduki dugun bakoitzean elkar laguntza izan.

MAITE: Oso atsegingarri da ori entzutea, baina ez duzu nire jakin nahia asetzen.

MANUEL: (*Maitasun tonoa*) Elkarrekin igaroko dituzuen egun hauetan izango duzue hitzegiteko denbora aski.

MAITE: Ez dut uste berak hitzegin nahi duenik, baina tira ea urte honetako elkartze honek kezka guztiak uxatzeko balio duen.

MANUEL: (*Kezkati*) Zoriontsu izango nintzateke hori haserrerik gabe lortuko balitz, baina zure ama eta zure asmoen jakinean nagoenez, etxe honetako giroan nahigaberen bat egonen den susmoa dut.

MAITE: (*Zorrotz*) Behar bada une honetan nahigabea ez da egokia izango baina...

MANUEL: (*Maiteren hitza ebaki eta serio*) Ez iezadazu ez orain eta ez inoiz horrelakorik aipatu, kontutan hartu ezazu zure amari buruz ari garela.

MAITE: (*Ahotsa aldatu eta leunki*) Barka Manuel, baina orain nik nahi dudan bakarra kanturako dudan zaletasunari uko ez egitea da.

MANUEL: Hori oso ondo dago, baina lehenago zure asmoak amari jakinarazi beharko dizkiozu.

MAITE: Lasai egon zaitez. Nik esango diot amari Milanera noala kantu ikasketak egitera, ez ditut nire asmoak zergatik gorde behar.

MANUEL: Zure ama ezagutuaz, ez zaizkio zure asmoak batere atsegingarri izango.

MAITE: Ezin dut besterik egin (*Manueli gogor*) eta oztoporen bat jarriko balit, nire indar guztiak erabiliko ditut garaitzeko.

MANUEL: Ez ezazu hain gogor joka. Pentsa zure amak zuretzako gauzarik hoberena nahi duela... gainera, bere hase-reak ez dira nolana hikoak.

- MAITE: Ederki dakit! baina ezin gintezke beti haserre beldur ibili.
- MANUEL: Beno, nire solasaldiarekin ez dizut lanak amaitzen utziko eta nik ere gonbidatuak etorri aurretik nire eginbeharretara joan behar dut.
- Manuel leihotik urrunduaz, barruko atletik izkutatzen da. Bestalde, Maitek bere lorak otartxoan, hosto eta lore-kirtenak zoko batean utziaz, barrura sartzen da eta mahai bateko txarroan loreak jartzen ditu... Arropak eta ilea astintzen ari dela, lorategira Miren eta Gorka sartzen dira oso dotore jantzirik. Mirenek lepoan laxo handi bat duen soineko beige eta jaka marroi argi bat daramatza; Gorkak berriz, telazko galtza grisak, alkandora zuri eta kuadro dun jaka bat.*
- MIREN: *(Karraskila paseaz)* Azkenean hemen gara *(arnasa sakonki hartu eta hasperenka)* Nire habi polita! *(Gorkari)* Maitasun usaina igertzen dut... Zer diozu Gorka?
- GORKA: *(Han-hemenka inguruak azalez begira)* Primerako lekua neke ondorengo atsedena hartzeko.
- MAITE: *(Baserriko atletik irten eta ama besarkatzen du)* Ama! Azkenean hemen zaitugu. Nire bihotzeko amatxo! Manuel eta biok orain gindoazen plazara zuei arrera egi-tera.
- MIREN: *(Bi eskuz alaba aldenduz)* Uf alabatxo! naranja antzera lauskituko nauzu; nire orrazkera harrotu eta jaka zimurtuko didazu. Gainera honelako lausenguetan zabiltzala, ez didazu zerbait eskatu nahiko?
- MAITE: *(Gorkari begira)* Ama, nor duzu gizon hori?
- GORKA: *(Gorkak Maitek luzatzen dion eskua hartuz muxukatzen du).* Zoragarria, jardin honetako kapulurik ederrenetan ederrena. Zure edertasunaren usainak gizonaren begiak eta izpiritua pizten ditu.
- MAITE: *(Nahigabeturiko irribarre eginaz)* Eskerrik asko. Nahiz lorez inguraturik egon, emakumeak ez gaitu inoiz horrelakorik entzuteak haserraten. Baina, ez gaitezen

kanpoan geratu. Gaurko goiz giroa nahiko narratsa da, barruan hobeto egonen gara.

Lehena Miren, gero Gorka eta azkenik Maite sartzen da; lehenengo biak maleta bana daramate. Baserrira sartu bezain laster, Manuel azaltzen da.

MANUEL: *(Miren labur besarkatuz masailean musu bat ematen dio)* Ene Miren, zer moduz? Zer nolako bidaiaria izan duzu? Behar baino lehenago etortzeak enbarazurik sortu al dizu?

MIREN: Ez Manuel ez. Bidaiaria eduki dut. Bidaiari eroso egin didan lagun on bat izan dut. *(Besotik helduz)* Etorraituz, Gorka aurkeztu nahi dizut *(Gorka aurkeztuz)* Gorka Arizabaleta, donostiarra izatez eta 23 urte azken hauetan Madrilen bizi izan dana. Manuel oroitu zara noski Aste Santuz goiko jauregira etortzen zen familiaz, bada Gorka haizetako bat duzu.

MANUEL: Ez zutaz ez naiz oroitzen bainan zure familiaz bai noski, izan ere urteak pasa dira eta gure ibaiak gerotik ur asko eramane du; baina tira, horrek ez du axolarik, orain ezagutzen dugu elkar... Zenbat urte egingo dira etorri zinen azken alditik?

GORKA: Honera 17 urte nituela hasi nintzen etortzen eta 22 betarik nituela aita Ministeritzako kargu garrantzitsu batera eramane eta famili osoak Madrilerara joan beharra izan genuen.

MANUEL: Horrela bada ez zait harritzen zure irudiak nire burutik ihes egitea, zahartzen hasia naiz eta burua arintzen doa.

MAITE: Ederki, ederki, zerbait hartuko duzue? Manuel presta ezazu topa egiteko zerbait, ni bitartean Gorkari bere gela erakustera noakio. Etorriko al zinateke mesedez Gorka?

Biak gelatik ateratzen dira mailetak eskuan daramatzatela.

- MANUEL: Ohitura zaharrak oraindik gustukoak izango dituzu, ez al da hala? Hamaiketako prestatuko dizut, moskatela galetekin.
- MIREN: Ah Manuel! Tentatzaile bat zara, bizi naizen bitartean ez dut gutuzi hauek hartzeko ohitura galduko.
- MANUEL: *(Moskatela eta gailetak prestatzen ari den bitartean)* Miren, ohartuko zinen zure alaba emakume ederra egi-na dagoela.
- MIREN: Bai Manuel, ez dut besterik buruan. Ez zait pentsa-mendutik kentzen urtetik urtera zein aldaketa nabar-menak egiten ari den.
- MANUEL: Gainera Salamancan egin dituen ikasketak ezin ho-beak izan dira. Harro egon zintezke zure alabaz.
- MIREN: Ez naiz harro egongo ba. Orain nirekin eramango dut etorkizunerako pausoak eman ditzan.
- MANUEL: Hori ederki dago, bainan eskertzekoa izango litzateke dituzun adiskideak ere mailari doazkionak izango bali-ra.
- MIREN: Begira Manuel, eskertzen dizut esaten didazuna, baina nire alaba nola tratatu behar dutan ez didazu zeuk erakutsiko eta nire alabarekin ditudan harremanetan zu bezain sensiblea naizela pentsatzen dut.
- MANUEL: Ez zaitez haserretu Miren, nik zera esan nahi nuen...
Gorka eta Maite sartzan dira eta Manuel ateratzen.
- MAITE: Ama, Gorkak gela atsegin duela dio. Zerbait edan nahi al duzu Gorka?
- MIREN: Atera iezaiozu niri bezala moskatel pittin bat, gustora hartuko du.
- MAITE: *(Bere amari)* Ama zergatik ez dituzu bidaiko jantziak kentzen? Zure gelara lagunduko dizut.
- MIREN: Arrazoi duzu alabatxo, hobe izango da janzeraz al-datzea, ziur gero erosoago egongo naizela.
Ama alabak ateratzen dira eta handik pixka batera Manuel sartzan da berriro ere.

- MANUEL: (*Ardo botela esku batean eta bi baso bestean Gorkarantz doa*) Har- ezazu baso bat eta nahi duzun neurrira iristen naizenean esan iezadazu. Basoak ez dira ardo mota honetarako egokiak, baina zauden lekua kontutan hartzen baduzu...
- GORKA: Ez dio axolarik gizona! Neu ere plaza gizona nauzu eta egoera guztietara moldatzeko ohituak egon behar gara (*elkarrizketa aldatuz*) Etxea txukun duzu jarria.
- MANUEL: Tira, ahaleginak egin ditugu zahar eta aldrebesturik zegoena txukuntzen, dena dela badago oraindik ere zer egina. Eraberritzea pentsatu genuenean lehenengo ezkaratza eta sukalde bat eginaz sala handi honetan bihurtu genuen, sarrerako atea ere aldatu, eta nola ez, itxura gordetzeko, baserriaren aurpegia pixka bat garbitu genuen.
- GORKA: Ederki dago. Etxe honetan bizi izan da Miren ere, ez al da hala?
- MANUEL: Bai, etxe honetan bizi izan da. Elkarrekin igaro genuen gure gaztaroa.
- GORKA: Bai, eta Mirenek zenbaitetan adierazi dit nahiko gogorra izan zela.
- MANUEL: Bai, ez du arrazoi gutxi. Pentsatzen dut hori zuri ere ez zaizula arrotz egingo. Gerla madarikatu hura, ondorengoentzako halako edo horrelako kolorea jarriaz ez zen eroso izan, guri ezarritako koloreak gose eta beldurarenak izan ziren....
- GORKA: Mirenen nahigabea ordea ez zen gose hutsa izan. Beharrek gehienetan pauso aldrebesetara bideratzen gaituzte.
- MANUEL: Bai, bai honelako egoeretan gaiztakerien harra pizkortzen da, beti behartsua pozoituaz, kupirik gabe... (*burua eskuartean hartzen du*) Haragiaren engainua.
- GORKA: Elkarrizketa hau maltzurkeria hutsa da eta egia zor dizudanez, zera esan behar dizut: gure lehen ikuste honetan, Maitek, zure antzik ez duela.

- MANUEL: (*Algara labur bat*) Zure hitzek harritu egiten naute. Bada adinez, Maiteren aita izan ninteke... zu ere bai noski. Baina ez, lasaitu zaitez, Maite, Miren eta gu hiruen arteko maitasuna ez da senide artean aurki daitekeena baizik.
- GORKA: Bai, bai. Zu ez bazara, zein ote? Argi dago ni ez naizela. Badakit herri honetakoa dela. (*Ahotsa maltzurtuaz*) Berriro ere nuen ari bakarra hautsi zait eta jakin nahiak irrikatzen nauka. Nor den jakiteak izugarri poztuko ninduke... nire isiltasuna izango duzula zin egiten dizut.
- MANUEL: Ez, barka, baina nahi izanez gero ere ezin dizut ezer esan, ez baitakit ezertxo ere, eta benetan diotsut ezjakintasun hau gainditzeko pausorik ez dudala eman eta orain ere ez dutala emango. (*Aurrez aurre begiratzen dio*) Zuen adiskidetasuna hain sendoa bada, zergatik ez diozu zeuk bertan galdetzen?
- GORKA: (*Pentsakor*) Haserretu egingo litzaidake. Nolanahi ere, batean azaldu nion halako jakinahia eta ez zidan jaramonik egin, argi utzi zidan ez zidala sekula santan esango. Geroztik noizbait galdera bururatu bazait ere zintzurtean geratu zait.
- MANUEL: Orain badakizu gure artean ez dela amodiozko harremanik egon. (*Irrifartsu*) Gainera, pentsa dezagun adinez, bai zu eta bai ni, bere aitak izan gintezkeela eta amarenganako adiskidetasunarengaitik, trata dezagun Maite alaba edo neska gazte bezela.
- Eskubiko atletik jantziaz aldaturik Miren eta Maite sartzen dira, gizonen giroaz arduratzen dira.*
- MIREN: (*Alaitsu eta besoak zabalduaz*) Etxe guztian zehar adiskidetasun giro usaina zabaltzen ari da. Pozten nau zuek honelako adiskidetasun solasean ikusteak.
- Leihotik eguzki dizdirak sartzen dira eta eguzkiaren garaipena nabaritzen da, hodeiek zerutik joan egin baidira.*

MAITE: Egin dezagun gure basoekin ttopo, (*harrosko*) eta horretarako atera gaitezen kanpora. Manuel, prestatuko al zenituzke armarioan dauden mantel eta kojinak, nik edariak eramango ditut. O! eta gonbidatuek barka diezagutela mementuko inprobisaketa hau.

Manuelek mantela eta kojinak jarriaz, mahaia prestatzen du. Bitartean, Miren eta Gorka, bere aldetik, etxeurreko loreak begiratzen ari dira.

MIREN: (*Ikuslegoruntz hurbilduaz*) Gorka etor zaitez! Hemen-dik ederki ikus daiteke gure herria. Nire nahigabe eta pozen oroimenak elizako kanpandorra bezain tinko jarraitzen dute, ez dira urteak baizik aldatzen. Makina aldiz igo naiz kanpandorre horretara. Dotrina ondorengo lilura-ametsak, sakristauaren jaisteko oihuak haus-ten zituen... Zer nolako oroipenak.

GORKA: Bai, egia da. Ez du inolako aldaketarik izan, azkeneko 25 urte hauetan behintzat. Ni umetan etortzen nintze-nean aldakuntza ekar zezakeen bakarra industria zen eta etortzerakoan gogoratu naiz auzoko herrietan dagoela industria. Eta herria hau nekazaritzara murgil-dua dagoela.

Maite haienganatz hurbitzen da topa egin behar dutela esanaz, biak esku banatatik hartu eta mahaiera eramaten ditu.

MANUEL: (*Irribarrez ihesiaz*) Ezkaratz honek hitzegin-go balu Miren, zer ez luke esango.

MIREN: (*Maite eta Gorkari*) Bertso asko buruz zekizkien eta noizbehinka ere berriren batzuk asmatu eta haietxek kantatzen zizkidan.

MAITE: Manuel ez zaitut inoiz argi entzun, zenbaitetan baka-riki ari zarenean nabaritu zaitut ahopean besterik ez.

MANUEL: Nahikoa dugu, gure solas petral honek Gorka asper-tuko du.

- GORKA: Alderantziz Manuel. Arraioa, etzazu atzera egin. Nahiz eta nire belarriak doinu horientzat gorturik egon, entzuteak ez dit kalterik ekarriko, atsegina baizik.
- MAITE: Senide giro honi eutsiaz, zergatik ez duzu dakizuen bertsoren bat abesten?
- MIREN: Bai, abes ezazu mesedez. Gogoratzen al zara geure buruak amaren magalean jarri eta nola entzuten genituen amak kantatzen zituen bertsoak?
- MANUEL: Bai, eta bereziki "Santa Barbararen Heriotza"ri buruzkoak...
- MAITE: Kanta ezazu mesedez.
- MIREN: Bai, bai, Gorkari ez dio ajolarik, ez al da hala?
- GORKA: Ez, ez, alderantziz pozik entzungo nituzke.
- MANUEL: Ez zaizkit bertso horiek inoiz ahaztu, bihotz erdi-erdian sarturik ditut. (*Goruntz begira bista urruti geratzen zaio eta Santa Barbari buruzko zenbait bertso kantatzen ditu.*) Santa Barbarari eskainitako bertso sortatik lehenbizikoa eta azkena kantatuko ditut.
- | | |
|--|---|
| Barbara zuen aitak lenago estimatua izana. | Esan biar det nola izan zan gizon aien ondoria. |
| Kolejiyo bat berak eginta estudiatzen zeukana. | Biyak tximistak erre zituen au da milagro obia. |
| Argitasuna au memoriyara ango maisuak emana. | Lendabiziko aita kiskali gero gobernadoria. |
| Orientalen Kristau egin zan Bitiniatik joana. | Orregatik da Santa Barbara suaren defentsoria. |
- MAITE: Emakume horren zintzotasuna eta sinismena eredu-tzat hartzen ditut, baina ez gaitezen gogo ilunez jarri... oraindik bazkaldu beharra daukagu eta hobe dugu lehenbaitlehen egitea, gero bakoitzak nahi duena egin dezala.
- Maite etxera sartzen da eta besteak astiro-astiro mahaia jaso eta tresnak beren lekuetan sartzen doaz. Bazkal ondoren, Manuel etxeko gela nagusian sartu, telebista piztu eta lasai asko esertzen da. Handik gu-*

*txira Maite sartu eta apaletik liburu bat hartzen du.
Beste ertzean esertzen da.*

MAITE: Manuel, axolarik ez bazaizu behintzat, telebistako ahotsari indarra jaitsiko zenioke?

MANUEL: *(Berehala jaisten du indarra)* Honela ondo dago Maite?

MAITE: Bai, oso ondo, eskerrik asko.

Eserlekuan tokia egin nahian mugitzen da.

MANUEL: Nora joan dira zure ama eta Gorka?

MAITE: Mendi aldera bueltatxo bat ematera.

Jokalari guztiak taulatik erretiratzen dira.

(Lehen ekitaldiaren amaiera da).

BIGARREN EKITALDIA

Arratsalde erdia da. Miren eta Gorka etxe aurrera sartzen direnean Miren haserreturik dago. Gorkari jaramonik egin gabe etxe barrura sartzen da. Gorka lorategian esertzen da eta tabakoa erreaz atsedenaldi bat hartzen du.

MIREN: Arratsaldeon! Uf! Ezin dut gehiago, niretzako gehiegi-zkoa da.

MAITE: Noski, lehen eguna izateko askotxo ibili zaretela iruditzen zait, ez da egokia. Dutxa prestatuko dizut, gero hobeto sentituko zara.

Maite amarentzat dutxa prestatzera ateratzen da. Manuelek telebista itzaltzen du eta poliki poliki Mirenen-gana hurbiltzen da.

MANUEL: Zer gertatzen zaizu Miren? Zure aurpegiak nekea baino gehiago haserrea agertzen du. *(Xamur-xamur)* Ora in arte gure artean ez da ixilekorik egon eta ondo

- dakizu sekulan ez naizela zure bizitzan sartzen ausartu, baina beharbada norbaitekin hitzegi nahi duzu.
- MIREN: Ez da ezer Manuel, eskerrik asko. Gorkarekin nire onetik atera didan eztabaida bat izan dut.
- MANUEL: Arrazoi garrantzitsuren batengatik ala...
- MIREN: Begira, gizon lizun hori nire alabaren atzetik dabil.
- MANUEL: Horrek ez zintuzke kezkatu behar, Maite ez da oraingoz mutiletaz gehiegi arduratzen, are gutxiago horrelako mutil zaharretaz.
- MIREN: Ez duzu gizon hori ezagutzen. Horrek dena diruaz erosten du eta gehitxo du. Bestalde, egin didan eskaintza edozein emakumerentzat tentagarri da.
- MANUEL: (*Harriturik*) Ez zara alaba saltzen hasiko bada.
- MIREN: (*Gorkaren ahotsa irudikatuz*) "Miren. ondo begiratzan badidazu ez nago hain gaizki eta 42 urte sasoitsu ditut, zure alabak 25, ez zait ezkontza hau aldrebesa izan litekeenik iruditzen..." (*Bere ahotsa jarriaz*) ezkonduko balira ziur egon daiteke herrian "Txintxarri hotsak" antolatuko lituzketeela.
- MANUEL: (*Irribarre maltzurra eginaz*) Gure gizon ospetsu honek "Txintxarri otsak" zer diren ere ez daki.
- MIREN: Gaia ez da hemen bukatzen. Hiruak elkarrekin biziko ginatkeela dio, niri diru kopuru bat eskaini eta bere ondasun guztiak Maiteren izenean jarriko lituzkeela eta abar.
- MANUEL: Proposamen interesgarria benetan, baina bildotsarekin jolasteko ahari zaharregia dela pentsatzen dut. Diruak, bai, eman diezaioke momentuko plazerra, baina gizon hori ez da Maiteren arrosaz jabetu daitekeena. Joan zaitez lasai dutxa hartzera, bitartean Gorka eta biok, nahi balu behintzat, herrira joan gintezke.
- Miren eskubiko atetik ateratzen da, Manuel, berriz, Gorkarengana doa lorategira.*
- MANUEL: Nekaturik aurkitzen zaitut.

- GORKA: Ez, ondo nago. Oso ibilbide egokia izan da eta nire birrikak haizez berritzeko ezin bestekoa.
- MANUEL: Zer diozu herrira bueltatxo bat ematera joateari buruz han zerbait hartu eta afari unea iritsi bitarte denbora egingo genuke.
- Bi gizonek herriko bidea hartzen dute. Maite gela nagusian bakarrik liburua irakurtzen hasten da. Ama dutxa hartu ondoren janzkera berezi batekin azaltzen da.*
- MIREN: Gorkak gaurko ibilaldian zeharo haserretu nau.
- MAITE: Ama, egia esatea nahi baduzu, gizon hori ez dut batere gogoko.
- MIREN: Zuk zer dakizu oraindik gizonak zein motako diren, gainera, ohituko zara Gorka ikusi eta berarekin harremanak edukitzen.
- MAITE: Zergatik diozu hori ama? Beharbada elkarrekin luzaro egongo garelako edo...
- MIREN: Horrela da. Hemendik aurrera ez gara gehiago elkarrengandik aldentuko. Zuk Salamankako ikasketak bukatu dituzu, ez duzu hara berriro itzuli beharrik.
- MAITE: Ama, baina zuk uste duzu nire bizitza zurearekin batera antolatzerik badagoela?
- MIREN: Zer diozu?
- MAITE: Bada... nik nire bizitzarekin zer egin, zein pauso jarraitu nahi ditudanaren oinarriak finkaturik ditudala.
- MIREN: Baina, zer esan nahi didazu zure bizitzako pausoen oinarriak finkaturik dituzula... Txitxalumetan zauden txoria zara oraindano. Oraingo honetan oso denbora gutxi daramagu elkarrekin baina zure ikasketak gainditu dituzula eta harrosko xamar ari zarela ohartu naiz, nirekin. Zure amarekin. (*Haserreturik*) norekin ari zaren hitzegiten jabetu beharko zenuke.
- MAITE: Denek dakite nire asmoak norantz doazen, ez duzu lotsarik sentitu behar.

- MIREN: (Zorrotz eta haserre) Ze lotsa eta lotsagaberik! Zer esan nahi duzu horrekin?
- MAITE: Ama, zu eta Gorkarekin elkaturik, zein bizitza mota eskaintzen didazu?
- MIREN: (*Begirada triste batez malkoak isurtzen hasten zaizkio*) Maite... Zer ari zara pentsatzen?
- MAITE: (Zutituz) Mesedez, ez zaitez negarrez hasi. Ezin dut pertsonak honela ikusterik jasan. Horrela jarraitzen baduzu gela honetatik joan egingo natzaizu.
- MIREN: Zein kupida gutxi duzun zure amarenganantz.
- MAITE: Askotan, zu nire ama zaren zalantza izaten dut.
- MIREN: Baina, zer diozu? Nola esan zenezake hori? Pentsatze hutsak lotsa eman behar lizuke.
- MAITE: Bai? Nor da nire aita, nire familia eta lagunak? Ez dut uste ama esatea nahikoa denik, beste eginbeharrak badaude eta ondo dakizu. Horiek ez ditudala nik ezagutzen. Gauza guzti hauek jakin nahi nituzke eta ez lehenengoarekin, aurrena ezagutzen dudanarekin bizitzera eraman nahi izatea. Ama! Nor da nire aita?
- MIREN: Ezin dizut esan, uler ezazu mesedez.
- MAITE: (*Ironiko, irribarrez*) Ez, nahi ez duzulako ezin didazu esan, baina zeu zara zerbait ulertu behar duzuna: zure alaba naizenez nire aita nor den jakiteko eskubide osoa dudala eta ziur egon zaitez esaten ez badidazu bihar bertan etxe honetatik joango natzaizula.
- MIREN: Ez duzu hori egingo!
- MAITE: Ezetz? Jarrai ezazu zure isiltasunean eta ikusteko aukera izanen duzu. (*Gogor*) Eta pentsa nire odola behar bada gizon likits horren odol pozoituaz zikindurik egon litekeela.
- MIREN: (*Gogor mintzatuz*) Ez, ez da gizon hori eta zure jakinerako esango dizut zure aita ez duzula ez orain eta ez sekulan ezagutuko, hilik baitago. (*Irribarre zorrotza*) Hark ere bere ordaina hartu zuen... Etxe oneko mutila ez zitekeen ni bezalako emakume behartsu batekin

ezkondu, ezin nion nire gorputza baizik eskaini eta hori ere bilutsik. Nahiago zuen etxe oneko alabaren batekin ezkondu, baina madarikazioa berarekin zerman, ezkontza hark ez zuen haurrik izan... (*Irribarre*) Orduan bere alabaz ohartu eta berarekin eraman nahi izan zintuen (*Pentsakor*) Ez zuen nire mesprezua besterik jaso. Handik urte gutxitara istripu batez hil zen, jainkoak zeruan izan dezala!

Amak aurpegia bi eskuz estaltzen du.

- MAITE: Ez da gutxi jakitea. Ama, ez iezadazu teatorrik egin, zuk hau jasatzeko baino odol hotzagoa duzu eta.
- MIREN: (*Gogor hitzegiten du.*) Ezin dut zure jokaera onartu. Zein eskubidez baliatzen zara niri modu honetan hitzegiteko? Zure buruaz harro zaude, baina nork eman dizu horrela egoteko posibilitatea, gaur egun zarena izateko? Bitartean nik zer izan dut? Zure jokaeraz lotsatu egin beharko zinateke, alaba.
- MAITE: (*Ordurarteko seguritate joera galduaz*) Ez ezazu pentsa zutaz barre egin nahi nuenik. Ez dut zure arrazoietara makurtu nahi, ez eta zu niretara makurtzerik. Nahi duzun bizimodua eramateko eskubidea duzu... nire errespeto osoarekin.
- MIREN: Inoxentea. Zein gauzak esaten dituzun. Zer uste duzu nire heziketa zurea bezelakoa izan dela, nahi nuena aukeratu, ikastetxe batera joan edota herriko dama dotore bat izateko ahalmena izan dudala?
- MAITE: Denok dauzkagu aukeratzeko posibilitateak. Egia da, behartsu jaioaz markesaren alaba izatea ezin amestu litekeela, baina tira neskame, jostuna, edo...izan liteke. Ez gaituzte zirkunstantziek egiten, egoerari aurpegia ematen ikasi behar da.
- MIREN: Zein erraz hitzegiten duzun. Jakin nahi al duzu zein izan diren nire zirkunstantziak? Ba al dakizu zerbait?
- MAITE: Ez.

- MIREN: Zure aitona nazionalek gerran hil zuten. Pentsa ezazu zer nolako pardela utzi zuen, emazte, bi seme-alaba, bi behi, oilo batzuk, baratza eta hiru pentza malkar. Nik orduan hiru urte nituen, Manuelek hamaika...
- MAITE: Zergatik bizi zen Manuel zuekin?
- MIREN: Manuelek bere gurusaoek bost bat urte zituela istripu batez galdu zituen eta zure aitonak lehengusu eta inguruetako sendi bakarra zelako bere babesean hartu zuen. Gure bizitza ez zen oso eroso izan, zenbatetan esaten zioten zure amonari inguruko auzokoez barretetik igarotzen zenean: "Zer Maite, orain ere kargaturik"? "Bai gure untxiek ere zerbait jan beharko dute eta aza-hostoren batzuk daramazkiet" Etxeko untxiak, noski, gu geu ginen. Zure amonak arropak, etxeak garbitu, plantxatu eta beste edozein gauzetan laguntzen zuen, lan hauen truke arropa, janaria eta diru pixkat ateratzen zuelarik. Modu honetan nola-hala aurrera gindoazen.
- MAITE: Ikasketaren bat egingo zenuten.
- MIREN: Bai, baina ez ziren zureak bezelakoak izan. Lehenengo eskola nazionaletara eramanez ninduten, gero 13 urte nituela monja eskola batera, han etxeokandrea zintzoa izateko hartzen genituen, sukaldaritzan, josten, beno eta gainerantzeko etxekolanei buruzkoak. Egoera honetan eta haizez betetako buruei erraz engainatzen zaie. Niri goxotasuna eskaini eta hantxe erori nintzen eta plazerraren ondoren samina heldu den; geroztik ederki asko purgatu behar izan dut. Oraindik aurrean dut nire ama, hark zuk baino kopetilunagoz begiratzen zidan, errudun sentitzen zen. Bizkarrean zeraman gurutzea astuna zen, ez baitzuen beste egoerarik eskaintzeko ahalmenik eduki.
- MAITE: Bitartean Manuel zuekin bizi al zen? 25en bat urte edukiko zituen ez al da hala?
- MIREN: Bai, hala da. Gurekin bizi zen, igeltsero-laguntzaile bezala zebilen eta zerbait etxeratzen zuen. Ahal zuen

guztia lagundu zidan, ez dut sekulan ahazteko. Oraindik ere bere hitzetaz gogoratzen naiz (*Gizon ahotsa hartzen du*) "Miren, nire lagun on bat Donostiako ostatu bateko nagusi da eta joan zaitez harengana, lanaren truke ohea eta janaria emango dizu eta horrela ere sabelean daramazun haurtxo hori ekar dezakezu mundura". Bada, Donostiara abiatu nintzen, zu jaio eta urte betera ama hil zen; lehenagotik Manuelek egun batean Donostiara eraman eta hala ezagutu zuen bere iloba. Nahigabeek eraman zuten mundu honetatik; lehenbizi aitaren heriotza, gero alabaren lotsa jasan beharra (*Malakoak ixurtzen zaizkiola bi eskuen artean izkututzen du aurpegia*)

- MAITE: Zergatik ez zinen herrian Manuelekin geratu?
- MIREN: Herriarenganako izan nezakeen interesa galdu egin nuen, Manuel ere bat zetorren nirekin. Bestalde, nire amaren hilobian zin egin nuen gu biok gosea pasa baino lehenago nire gorputza salduko nuela. Geroztik bide horretatik joan dira nire pausoak.
- MAITE: Baina, zergatik ez zenuen neskame jarraitu? Ez al zinen poliki-poliki aurrera aterako?
- MIREN: Neskame bezala lan egiteak ez du dirurik ematen, oso gutxi ordaintzen da lan hau. Lur jota nengoen, ez nuen lokatzetatik ateratzeko talenturik; batzuk aurrera jotzeko ikasketak dituzte, nik, berriz, nire gorputza (*Gogor eta zalantzarik gabe*) Madrilera jo nuen eta han tabernatetik kalera nebilela Gorkarekin topo egin nuen, hizketan elkarri ezagutzera eman genuen. Diruduna zen eta zitetarako etxe bat antolatzea proposatu zidan, hala egin genuen eta ni etxe horretako ardura-dun bezala hasi nintzen. Garai hartan 25 urtetako emakume eder bat nintzen... Inori ez zaio honelako lanetan aritzea atsegin. Zenbatetan ikusi ditut emakume nekatuak gizonen atsegingarri izateko ahalegin guztiak egiten eta hauei bost axola. Ez, ez da emakumeentzako lan atsegina.

- MAITE: Baina, ez behar hauek igaro ondoren, pena merezi al du horretan jarraitzeak?
- MIREN: Kondairan zehar dugun ogibide zaharrenetako da eta emakume behartsuak dauden bitartean ez da desagertuko. Erokeria izango litzateke emakume aberatsak horretan jardutea.
- MAITE: Ama, jarri ezazu une batez zuk igaro dituzun beharretan gaudela, utziko al zenidake lan horretan aritzen?
- MIREN: Baina Maite! Zein motatako ama naizela uste duzu? Ez diot nire alabari bere burua galtzen sekulan utziko. Ahaleginduko nintzateke behar diren pausoak ematen dirua lortzeko.
- MAITE: Eskertzen dizut esandakoak. Atsedean handia eman didazu eta nire burutik uxatu dituzu nituen pentsamendu txar guztiak.
- MIREN: Berehala etorriko dira afaltzera bi gizonak, goazen bitartean zerbait hartzera.
- Hurrengo goizean, egun eder-eguzkitsua, berriro ere Maite lorategian dago. Oraingoan eguzkia hartuaz liburu bat irakurtzen ari da. Gorka eta Manuel, bestalde, gela nagusira sartzen dira.*
- GORKA: Zer diozu nire asmoetaz Manuel? Nik oraindik ez dut nire gorputza 42 urterekin zaharturik aurkitzen.
- MANUEL: Zer esatea nahi duzu? Nik lehengoan jarraitzen dut, bere aita izan zintekoen, baina hala ez zarenez... gainera ez zinateke neska gazte batekin ezkontzen den agure bakarra izango. Ni ere ezkonduko nintzateke baina nire kidekoren batekin?
- GORKA: Baina ez genioke horri bakarrik begiratu behar; adibidez, nola ezkonduko da ogibide, ondasunik ez duen gazte batekin?
- MANUEL: Galdera hori berak erantzun beharko luke eta oraintxe duzu aukera ezin hobea, lorategian bakarrik duzu eta. Hala ere alferrik iruditzen zait, baina, tira, saiatu gabe ezer ez dago lortzerik. Zergatik ez zara joaten?

- GORKA: Bai, arrazoi duzu, banoa.
- MANUEL: (*Beretzako*) Beldur naiz eskuan duen liburua ez ote den Gorkaren buru gainera joango. Banoa hemendik.
- GORKA: (*Lehenago so egiten dio*) Zein egun ederra dugun, ez al da hala Maite?
- MAITE: (*Atzera begiratu eta nahigabeturik altxatzen da*) Bai, zoragarria benetan.
- GORKA: (*Zalantzaz*) Begira Maite, ez dut nere burua engainatuko eta behar bada ez naiz emakumeentzako egokia baina...
- MAITE: Zergatik ez, Gorka?
- GORKA: Arrazoi askorengatik. Gure Jaungoikoak ez dit gorputz eder bat eman, baina bai poltsikua diruz betea.
- MAITE: Gaitzerdi.
- GORKA: Honekin ez dut nire burua goratu nahi, baditut nire akatsak, ez naiz gizon perfektua, baina gizatasun bidea jarraitzea atsegin zait, berdin da aurrean dagoena emakumezko ala gizonezko den. Ez ezazu pentsa alproja hutsa naizenik, ez, ez, nire jakituriaz baliatuz, dotez eman zidaten ondasunak hiru edo lau aldiz gehiagotu ditut.
- MAITE: Eskertzen dizut esaten ari zarena.
- GORKA: Ez iezadazu eroarena egin, ondo dakizu norantz noan eta. Ez dut inongo presarik, nire sentimentuak azaldu nahi nituen bakarrik.
- MAITE: Nire erantzuna ezezkoa da.
- GORKA: Ondo pentsa. Nik zu baino urte gehiago ditut, ez naiz mundu honetan betirako egongo, zu baino lehenago hilko naiz eta orduan nire ondasun guztiak zuretzako izango lirakeke.
- MAITE: Horrek ez nau gehiegi liluratzen. Lehengokoan jarraitzen dut.
- GORKA: (*Loreak ukitu eta usainduz*) Zure amarentzako lagun on bat izan naiz. Zure ama ez legoke orain duen posi-

zioan, nik negozio horretan sartu nuen dirutza jarri ez banu. Badakit negozio mota honek ez duela gizartean ohore gehiegirik ematen, hutsa ez esateagatik, baina zure ama negozio mota hauek aurrera eramateko oso trebea dela esan behar dizut, horregatik dago zuzendarri bezala.

MAITE: Eta niri ere holako negozioren bat jarri nahi al didazu?

GORKA: Ez, nire emazte izango dena ez da horrelako negozioetaz arduratuko, eta zuk ez duzu orain baino gehiago giro hori biziko.

MAITE: Nik betidanik bizitu izan dut. Nire ikasketak, nire orain arterainoko bizitz osoa horri esker izan da. Hara nola bat ederki bizi daitekeen emagalduen izerdiari esker!

GORKA: Nork esan dizu hori?

MAITE: Nire amak eta, gertatu dena gertatu, ez dut uste ezer ere zor dizudanik eta hala balitz, eskerrik asko eta adio, ez nazazu gehiago aspertu, mesedez.

GORKA: Ez dut amore emango nere asmoetan, orain harro zabilta bainan egun gutxitara, hobeto pentsatu ondoren, ziur naiz eskaintza onartuko duzula.

Maite liburua mahai gainera bota eta korrika gelara doa. Gorka etxetik aldentzen da. Handik gutxira, Maite bidaiako boltsa batekin ateratzen da, Manuel gertu dago, hurbildu eta bizkarretik maitekiro hartzen du.

MAITE: Manuel, ezin dut zerri horren solasik gehiago jasan, maltzurra eta desegokia izan da.

MANUEL: Pentsatzen nuen. Zuri esan aurretik niri adierazi dizkit bere asmoak, zure ezezkoaren jakinean jarri dut. Maite, benetan zutaz oso harro nago.

MAITE: Manuel, zuk ba al zenekien nire ama eta bere arteko harremanaz zerbait?

MANUEL: Bai, baina ez nintzen inoiz ezer esaterik ausartu. Orain pausoa ematera zoazen une honetan, zure baimenarekin, inoiz ezagutu, izan ez duzun aita izatea atsegin

izango litzaidake, nire babesa eskaini nahi dizut. Badakit ez dela asko baina ez ezazu baztertu mesedez.

MAITE: Eskerrik asko, Manuel (*Malkoak isurtzen zaizkio*)

MANUEL: Ni ere zure amaren sareetan eroria egon nintzen. Zer-bait izatera iritsi banaiz, berari esker izanda, nahiz eta berak horri esker errentatxo bat jaso.

MAITE: Santa Barbara bezala, ez dezagun galdu askatasuna-ren aldeko sinesmenik, nahiz beharraldiak zigortu, gu biok elkarrekin egonen gara. Nire kantu ikasketak amaitu bezain laster etxera itzuliko natzaizu; aita deitzea ezinezkoa izango da, baina nire guztizko osaba bai.

MANUEL: Ondo ilobatxo. Orain lasai zaitez, ez dezagun gauza okerrik egin, Santa Barbararen antzera ahal dugun egokien jokatzeko saiatu behar dugu. Joan aurretik zure amarekin hitzegin behar duzu, ez baduzu nahi ere.

MAITE: Ez diot amari agurrik ere egingo.

MANUEL: (*Maite eserarazten du*) Berriri diotsut lasaitzeko. Nahi baduzu ni ere zuen elkarrizketan egongo naiz, eta zure ama, hori, ama bat bezala tratatuko duzu, eta agurtu ere bai. Zalantzarik gabe erruak izan ditu, baina azier-tuak ere bai eta gertatu dena ez da bizitza guztian bien artean mututurik ibiltzeko arrazoi nahikoa.

MAITE: Ez ezaiozu esan Donostiara noanik.

MANUEL: Ez. Etxe honetako babesa betidanik izango duzu eta nik ere diruz lagunduko dizut, ez da zure amak ematen dizun hainbesteko kopurua izango, baina estual-dietatik ateratzen lagunduko dizu.

MAITE: Ondo dago.

MANUEL: Orain zu ez zaitez mugitu, zure amari otsegitera noa.

Manuel atera eta Maitek mukizapiarekin malkoak lehortu eta sudurra astintzen du. Berehala Miren eta Manuel sartzen dira.

MIREN: Zer gertatzen da? Baina zer da, negarrez egon al zara?

- MAITE: Ez da ezer ere. Ama, banoa etxe honetatik.
- MANUEL: Azken elkarrizketak, deklarazioak; lehenengo zure bizitza, gero Gorkaren eskaintza, gogorregia izan da Maiterentzat, horregatik doa.
- MIREN: Madarikatu hori. Esan nion ezer ere ez esateko eta asto horrek, beti bezala dena hondatu du. Baina Maite, alabatxo, aurrez bazenekien zein negoziotan ari naitzen.
- MAITE: Ama, horrek ez nau arduratzen, atzo ere esan nizun, kezkatzen nauena zu ere gizon likits horrekin ados egotea da.
- MIREN: Alaba, ba al dakin zer esan nahi duen aberastasun hitzak? Gazte gordetzea, trajeak, antzerkia, opera, zarzuela, gizonezkoak hankapean edukitzea... Zer dun hemen? Astoaren arrantza. Begira iezaion Manueli, okerturik zegon. Hori nahi al dun? Herri honetan betirako geratu nahi al dun? Etorkizun ederra daukan.
- MANUEL: Miren arrazoi duzu, baina kontutan hartu gure denbora agortzen ari dela eta geroa, izan garenari mugatua dagoela.
- MIREN: Zer dakizu zuk bizitzari buruz Manuel! Herri alubita honetatik inoiz ez zara atera eta.
- MAITE: Zer esan nahi duzu?
- MIREN: Popatik botatzen ari haiz hire etorkizuna. Zein inoxentea haizen. Ederki erakutsi dinате Salamanca aldean mundua borobila denez bertako bizitza larrosezkoa duala, eta aurkituko haiz gizalegez betetako gizartean. Ez haiz arlotea izan eta jaits hadi ametsezko irudietatik lurrera. Begiratu ezan hire amaren bizitza nolakoa izan den eta ez ezan alperrik denborarik gal, badun non ikasia eta baliatu hadi horretaz. Denbora emakumearen kontra zihoan, gazte haizen bitartean kutsurik gabe egon hadi eta zahartzean, gorputza ximeltzean alperrik dun, ez din inortxok jaramonik egingo.

- MAITE: Ama, konturatzen zara Gorkak duen filosofia berbera duzula? Ez dakit nola ez zareten biak elkarrekin bititzen.
- MIREN: Ez ezan txorakeriarik esan.
- MAITE: Ni Milanera noa kantu ikasketak egitera, hauek amaitzean joango natzaizu Madrilerara bisitatzera.
- MIREN: Ikusteko nagon. Nola ari haizen hire amaz barre egiten. Ez al din inoiz hire alabak gauza berbera egingo?
- MANUEL: Miren, ez ezan horrelakorik esan. Ez al dakin ez dagoela amaren madarikazioa bizkarrean daraman alaba zoriontsurik?
- MIREN: Arrazoi duzu Manuel, Jainkoak barka nazala. Baina, Maite, hi bakarrik ari haiz nire aurka. Betidanik emakume jatorra izaten saiatu naun, lanean zintzoa. Zintzotasuna gorde artean asto bat baino gehiago lan egin dinat. Niretzako ez dinat besterik izan.
- MANUEL: Miren ez ezazu hain gogor hartu. Okerrena pentsatzen ari zara, ez gaituzu galdu.
- MIREN: *(Berean jarraitzen du. Beretzako)* Aurrerantzean zin egiten dinat kalte besterik ez dinatela egingo. Ikusita-koak ikusi, zertarako balio izan din eginak?
- MAITE: Ama! jarraitu jarritako bidetik. Ziur naiz, zuri gertatua, niri gertatu izan balitzait zure joera berbera izango nukeela.
- MIREN: Horrela dagoenez arrazoi izango dun, baina Jainkoak gorde gaitzala. Berriro ere joango naun inork maite ez nauen lekura *(Kuadrorantz joaten da)*
- MIREN: Ama, ez al didazu besarkatu edo musuren bat eman behar?
- MIREN: Agur!
- Maite Manuelen besoetara erortzen da eta biak maletak harturik aldentzen dira.*

AMAIERA.